

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea



II. MODULUA ESKOLA ETA CURRICULUMA

2021/22 ikasturtea



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

ERAIKINA: HEFA II (OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA)

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
1.1. MODULUKO IRAKASGAIK ETA IRAKASLEAK.....	3
2. KONPETENTZIAK.....	4
2.1. GRADUKO KONPETENTZIAK.....	4
2.2. LAN MODULARREKO KONPETENTZIAK.....	4
3. TALDEKATZEAK.....	5
4. LAN GIDATUA.....	5
4.1. ARAZO EGOERA.....	5
4.2. ATAZA.....	5
4.3. ENTREGATU BEHARREKOAK: OINARRIZKO ORIENTAZIOAK.....	6
5. LANAREN KRONOGRAMA.....	9
6.- EBALUAZIOA.....	10
8.- ERANSKINAK.....	12

1. SARRERA

Eskola eta Curriculuma modulua lehenengo mailako bigarren lauhilekoan kokatzen da. Moduluan 5 irakasgaiak parte hartzen dute, eta bost irakasgaiak bere baitan biltzen dituen diziplinarteko lan bat egin behar dute ikasleek. Lan honek 1 edo 1,2 ECTS balio du, irakasgaiaren arabera, eta saio teorikoetan, praktikoetan zein eskolaz kanpo garatuko da.

Moduluko lan honetan Lehen Hezkuntzako ikasleentzako ikaskuntza saioak diseinatuko dira, Heziberri 2020 marko pedagogikoaren barruan curriculumeko proposamenez baliatuz, zuen esperientziak kontutan izanda eta adimen anitzaren teoriak hezkuntza mailan izan duen ekarpena kontenplatuz.

1.1. MODULUKO IRAKASGAIK ETA IRAKASLEAK

Hezkuntzaren Psikologia: Blanca Olalde (31 Taldea), Amaia de la Fuente (31 Taldea) eta Lorea Azpiazu (31 eta 32 Taldea)

Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I: Lidia Caño (31 Taldea) eta Oihana Barrutia (32 Taldea)

Didaktika Orokorra: Justo Bereziartua (31 Taldea) eta Lorea Fernández (32 Taldea)

Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I: Maddi Elorza (31 Taldea) eta Naiara Vicent (32 Taldea)

Matematika eta bere Didaktika I: Maite Arraiza (Moduluko koordinatzailea) (31 Taldea), Maialen López (32 Taldea), Josemari Sarasua (Ingelesa)

2. KONPETENTZIAK

2.1. GRADUKO KONPETENTZIAK

Graduko titulazioetan hainbat konpetentzia lantzen dira modulu-etako irakasgaien artean. Konpetentzia horiek irakasgai-etako edukien bitartez zein diziplinari-terko lanen bitartez lantzen dira. Eskola eta Curriculuma modulu-an honakoak dira, lantzen diren graduko konpetentziak.

1. Taula Graduko konpetentziak.

Konpetentziaren kodea	Konpetentziaren definizioa
G001	Lehen Hezkuntzako curriculum-arloak, dagozkien diziplinen arteko harremana, ebaluaketarako irizpideak eta dagozkien irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozeduren inguruko ezagutza didaktikoen edukia ezagutzea.
G002	Irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak diseinatu, planifikatu eta ebaluatzea, bai indibidualki eta bai zentroko beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean ere.
G009	Etorkizun iraunkor bat lortzeko garaian, erantzukizun indibiduala eta kolektiboa balioestea.
G011	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta ikasgeletan aplikatzea. Ikaskuntzari, heziketa herritarrari eta kultura- aberastasunari lagunduko dion ikus-entzunezko informazioa bereziz hautatzea.
G012	Lehen Hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarriko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Kalitatea hobetzearren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.
G013	Euskara eta gaztelania eta, gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna frogatuz bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza-testuinguru batean gauzatu ahal izateko, baina betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.

2.2. LAN MODULARREKO KONPETENTZIAK

Moduluari dagozkion graduko konpetentziez gain, espezifikoki moduluko lanaren barruan lantzen diren konpetentzia zehatzak eta graduko konpetentziekin korrespondentzia zehazten da.

2. Taula Lan modularreko konpetentziak.

M01	Askotariko adimenen teoriari buruzko bibliografia aztertu eta informazio esanguratsua eskuratzea, norik bere ekarpena eginez eta, gero, denen arten osatuz. (G011)
M02	Curriculumaren garapenean oinarri psikopedagogikoei duten eragina analizatu ondoren, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat diziplinari-terko ikaskuntza prozesuak diseinatzea sormenez. (G001, G002, G012)
M03	Lehen Hezkuntzako ikastaldeentzat jarduerak zehatz deskribatzea eta txosten idatzian aurkeztea, curriculumeko osagaiak oinarritzat hartuz. (G013)
M04	Lehen Hezkuntzako ikasleentzat prestatutako ikaskuntza jarduera konkretuekin proba egin eta ebaluatu elkarlanean eztabaida sortuz eta aldaketa nahiz hobetzeko iritziak ere argi adieraziz. (G002, G010)
M05	Informazioa laburtzea eta sormenez era grafikoan adieraztea, testuan azaldukoak bilduz eta tresna digitalen bidez txertatuz (G011).

3. TALDEKATZEAK

Taldeak 4/5 pertsonakoak izango dira (salbuespenik ere suertatu daiteke, baina ez dira hasieratik onartuko 3 eta 6 pertsonatako talderik) eta talde bakoitzari erreferentziazko tutore bat esleituko zaio. Esleipena otsailaren 11rako egingo da.

Matematika ingelesez egiten dutenen kasuan taldekatzea beraien artean gauzatuko da, taldekideak 31 edo 32koak izanik.

Talderen batean arazoak sortuz gero, eta taldea konpontzeko gai ez bada, irakasle taldeak erabakiko du zein neurri hartu irtenbide bat bilatzeko.

Ikasle talde bakoitzak bere taldeko fitxa (ikus 8.1 eranskina) bete eta moduluko koordinatzaileari entregatu beharko dio otsailaren 4erako. (31 taldekoak Maite Arraizari eta 32 taldekoak Lorea Fernándezi)

4. LAN GIDATUA

4.1. ARAZO EGOERA

Oinarrizko Hezkuntzako tutoreak zarete eta zuen Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP) askotariko adimenen teorian oinarritzen da besteak beste. Ez duzue asko irakurri teoria horren inguruan eta hutsune hori bete beharrean aurkitzen zarete. Era berean, Curriculum askotariko adimenen ikuspuntutik aztertzea zilezkoa iruditzen zaizue, baita teoria honek ikastetxera zein aldaketa ekartzen dituen argitzea.

4.2. ATAZA

Lehenik eta behin testuinguruaren azterketa eta hausnarketa egingo duzue. Ondoren eta aukeran, jarraian zehazten direnildoetako bat oinarri hartuta, aplikazio praktiko bat diseinatu beharko duzue Lehen Hezkuntzako adin edo maila bateko ikasleentzat:

- Jasangarritasuna
- Larrialdi Klimatikoa
- Giza Eskubideak
- Pandemia
- Artea: mugimendu ezberdinak
- Sare Sozialak.
- Etab.

Aplikazio hori ordu beteko 5 saio osatuko dute, eta saio hauetan adimenen lanketa zehazten duten prozedurak (gutxienez 5) (ikusi prozeduren taula) erabili beharko dituzue ahal den moduan prozedurak beraien artean konbinatuz. Moduluko jakintza arlo guztiak txertatuta egon behar dira. Amaieran DILANean jorratutako edukiekin kontzeptu mapa bat gauzatu beharko duzue, sintesi modura.

3. Taula: Prozedura mota eta adibideak.

Prozedura mota	Adibideak
Ebidentziak, informazioa edo datuak lortzeko prozedurak	Behaketa, deskribapena, esperimentazioa, informazioaren lorpena, iturri bibliografiko desberdinen erabilera,
Baliabide semiotikoen bitartez gertaerak eta informazioa modelizatzeko prozedurak	Marrazkiak, diagramak, maketak, taulak, eskemak, kontzeptu mapak, etab.
Patroiak identifikatzeko prozedurak	Konparaketa, sailkapena, datuak, gertaerak, espazioen edo informazioaren antolaketa eta interpretazioa
Gertaerak edo patroiak azaltzeko prozedurak	Hipotesien edo konjeturen adierazpena, ebidentzietan oinarritutako azalpenen eraikuntza, hausnarketa
Ondorioak edo azalpenak ebaluatzeko prozedurak:	Besteek emandako azalpenen ebaluazioa, usteak eta egia motak (enpirikoak, logiko-matematikoak) bereiztea.
Lankidetzarako eta ikuspuntu pertsonalak agerian jartzeko prozedurak	Lankidetzaren erraztea eta aplikatzea (lan kontratua, lankidetzarako dinamikak, komunikazio asertiboa lantzeko jarduerak...), ikuspuntu anitzak sustatzea, introspektiborako uneak uztea eta testigantzak jasotzea (ahoz, modu grafikoa...), ekoizpen edo ikuspuntu pertsonala agerian jartzea (bildumak, portfolioak, iritziak emateko aukerak...)

4.3. ENTREGATU BEHARREKOAK: OINARRIZKO ORIENTAZIOAK

Diziplinarteko lan honek hiru txosten/atal izango ditu. Txosten hauek lauhileko osoan zehar entregatu behar dituzue banan-banan, eta lanaren ebaluaketa jarraitua izango da txosten bakoitzari feedback emango zaiolarik irakasleen aldetik. Horretarako, txosten bakoitzaren entrega eguna zehazten duen kronograma diseinatu dugu (ikus gidaren 6. atala). Txosten hauen entrega 31 taldean Maite Arraizaren Egela eta 32 taldean Lorea Fernándezen Egela gauzatuko dira.

TALDEKO FITXAK: Fitxa batean (ikus 8.1 eranskina) taldearen eta taldekideen datu eta argazkiak bilduko dira.

Entrega eguna: Otsailak 4.

Non: eGELA-n

Nola: PDF formatuan

1. TXOSTENA: Lanaren sarrera eta marko psikopedagogikoa jasoko duen txostena da (ikus 8.2 eranskina).

Curriculumaren garapena ikasgelan oinarri hartuta, saiatu hurrengo osagaien artean beraien aplikagarritasuna ikasgelan nola uztartu daitekeen azaltzen. Aurrerago gai bat hartuko duzue oinarritzat eta 5 saio diseinatu beharko dituzue prozedura (behaketa, sailkapena, hipotesien formulazioa,

adierazpen grafikoa, etab.) desberdinak erabiliz.

Txosten hau aurrera eramateko osagai bakoitza ondo ulertzea eta ezagutzea eta baita ere bakoitzetik ideia nagusi batzuk zehaztuak eta adostuak izatea garrantzitsua da:

- Adimena eta adimen anitzen teoria
- Norbanakoaren eskola esperientzia
- Hezkuntza dekretua

Hortaz, atal honetan gaiarekiko zuen argudiatzeko gaitasuna ikusi nahi dugu. **Ikasgelako giroak, antolakuntza moduak eta ikaskuntza praktikak deskribatu ahala, askotariko adimenen teoriak eta curriculum diseinuak duten eraginaz idatziko duzue, baita dituzten ahuleziez ere.** Oinarri sendoak izan beharko ditu. Hainbat irakurketa eta dokumenturen azterketa burutu beharko duzue. Horien artean curriculum dekretua, testu liburuak, artikuluak eta bestelakoak bilatu eta aztertu beharko dituzue, hauek modu egokian erabiliz (apa 7 edizioa). Informazio hau lortzeaz gain, zuen esperientzietatik eta ezagutzatik egindako hausnarketa berariaz balioetsiko da.

Honetaz gain, bukaerako atal batean, talde lanean nola aritu zareten azaldu beharko duzue indargune, ahulgune eta zailtasunen hausnarketa labor bat eginez.

Entrega eguna: Martxoak 7

Non: eGELA-n (Lorea F. 32 taldea eta Maite A. 31 taldea)

Nola: Word formatuan zintzilikatuko da

Orrialde kopurua: 3/4 orrialde gehienez

2. TXOSTENA: Ikasleekin aurrera eramango duten ordu beteko **5 saioen zehaztapena** (ikus 8.3 eranskina) . Horietan 1. Taulako prozedura guztiak landu beharko dira. Ahal den neurrian saio bakoitzean prozedura desberdinak konbinatuz.

Aintzat hartu, zuek aukeratzen duzuen Lehen Hezkuntzako etapari zuzenduko zaiola. Prestatzen diren saioak egingarriak izango dira eta kontuan izan, horietako bat aurrera eraman beharko duzuela beste talde batekin. Aurrera eramatea erabakitzen duzuen saio horretarako, beharrezkoa den materiala ere eraman beharko duzue (analogikoki edo/eta digitalki).

Honetaz gain, bukaerako atal batean, talde lanean nola aritu zareten azaldu beharko duzue indargune, ahulgune eta zailtasunen hausnarketa labor bat eginez

Entrega eguna: Apirilak 1.

Non eta nola: eGELA-n. (Lorea F. 32 taldea eta Maite A. 31 taldea, ingelesekoak Josemari Sarasuari)

Orrialde kopurua: beharraren arabera

2.1 Elkar trukea: Taldeak binaka elkartuz 2. txostenaren kopia bana entregatuko dute. Lanaren aurkezpen labor bat egingo da, prestatutako saioak eta erabilitako prozedurak azalduz. Ondoren hauetako saio bat beste taldearekin aurrera eramanik.

Azkenik jaso dugun beste taldearen 2. txostena ebaluatuko da. (8.4 eranskina ikusi). Ebaluaketa

orri hori taldeari helarazi beharko zaio, eta ebaluaketa hori lanaren azken bertsioan gehituko da.

Elkartruckerako eguna: Apirilak 25-29

Non: Didaktikako saioetan.

Orrialde kopurua: 2 orrialde.

Nori: Elkartrukea egiten den taldeari.

3. TXOSTENA: Lanaren azken bertsioa izango litzateke. Aurreko txosten guztiak biltzen dituen eta modu "txukunagoan" ordenatzen dena. Honako atalak azaldu behar dira.

- Azala (taldekideen izenak, moduluaren izena, ikasturtea eta taldea, irakasle tutorea)
- Aurkibidea
- Lanaren justifikazioa
- 5 saioak
- Taldeen arteko ebaluazio saioan jasotako ebaluaketa orria (ez taldeak egin duena)
- Kontzeptu mapa
- Diziplinarteko lanaren ebaluaketa orria (8.5 eranskina)
- Bibliografia (APA arauen 7. Edizioa)

Entrega eguna: Maiatzak 13.

Non: eGELAn (Lorea F. 32 taldea eta Maite A. 31 taldea)

Nola: PDF formatuan.

4.3. TXOSTENAK IDAZTEKO FORMATUA

Txosten guztiek formatu berdina izango dute:

- Azal single bat taldekideen izen abizenekin, azpitaldearen kodearekin (GA1/2) eta txostenaren izenburuarekin
- Letra mota: Arial 10
- Lerroarte: 1,5
- Ertzak: 2,5 cm
- Orrialde guztiak zenbakituak

5. LANAREN KRONOGRAMA

Lauhileko egutegi honetan diziplinarteko lana egiteko erabiliko diren asteak zehazten dira.

URTARRILA 2022

17	18	19	20	21
24	25	26	27	28
31				
Urtarrilak 24-28: irakasgai eta DILANaren aurkezpen egunak				

OTSAILA 2022

	1	2	3	4
7	8	9	10	11
14	15	16	17	19
21	22	23	24	25
28				
Otsailak 4: taldeko fitxaren entrega Otsailak 11: tutore esleipena Otsailak 28: ez dago eskolarik				

MARTXOA 2022

	1	2	3	4
7	8	9	10	11
14	15	16	17	18
21	22	23	24	25
28	29	30	31	
Martxoak 1: ez dago eskolarik Martxoak 7: 1.txostenaren entrega				

APIRILA 2022

				1
4	5	6	7	8
11	12	13	14	15
18	19	20	21	22
25	26	27	28	29
Apirilak 1: 2. txostenaren entrega Apirilak 14-22: Aste Santuko oporrak Apirilak 25-29: DILAN elkartruke astea				

MAIATZA 2022

3	4	5	6	7
10	11	12	13	14
Maiatzak 13: azken entrega				

6.- EBALUAZIOA

- Diziplinarteko lana egitea derrigorrezkoa da.
- Modulu lanaren nota ikasturte barruko deialdietarako bakarrik gordeko da.
- Klasera etortzen ez diren ikasleek ez dute diziplinarteko lana egiterik izango, baina azken proban diziplinarteko lanari buruzko galdera edo lan bat izango dute egiteko. Gogoratu diziplinarteko lana irakasgaiaren edukietan txertatzen dela, hortaz, irakasgai bakoitzak erabakitzen du zer nola ebaluatuko duen.
- Txostenetan plagioa detektatzen bada zuzenean zeroko kalifikazioa jarriko zaio lanari.

Ebaluaketari dagokionez irakasgai bakoitzak lanari emango dion puntuazioa 3. Taulan adierazten da.

3. Taula. *Irakasgai bakoitzak lan modularrari esleitutako kredituak⁽¹⁾ eta balioa.*

	Kredituak	Puntuazioa
Didaktika Orokorra	1,2 Kreditu	2 puntu
Gizarte zientziak eta bere didaktika	1,2 Kreditu	2 puntu
Hezkuntzaren Psikologia	1,2 Kreditu	2 puntu
Matematika eta bere didaktika	1 Kreditu	1,6 puntu
Natura Zientziak Lehen Hezkuntzako Ikasgelan I	1 Kreditu	1,6 puntu

(1) Kreditu ECTS bakoitzeko 10 ordu aurrez aurrekoak eta 15 ez aurrez aurrekoak dira.

4. Taula. *DILANa* ebaluatzeko aintzat hartuko diren irizpideak

MODULUKO KOMPETENTZIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
M01	<p>1.1. Eduki garrantzitsuen identifikazioa egin da</p> <p>1.2. Erlazioen arteko koherentzia ikusten da</p> <p>1.3. Hausnarketan argudiaketa-kalitatea ageri da</p> <p>1.4. Originaltasuna eta gaitasun kritikoa erabili dira</p> <p>1.5. Informazio erabilgarria den arteko eztabaidan hautatu da</p>
M02	<p>2.1. Saio bakoitza prozedura mota eta ezagutza arlo bat baino gehiagorekin lotzen du.</p> <p>2.2. Saioak bere osotasunean aurkezten ditu (saioaren definizioa, beharrezko materiala, prozeduren erabilpena, denboralizazioa, taldekatzeak, etab.).</p> <p>2.3. Saioak erakargarriak eta orijinalak dira.</p> <p>2.4. Prestatutako saioak Lehen Hezkuntzako etapari egokitzen zaizkio.</p>
M03	<p>3.1. Ikaskuntza jardueren ezaugarriak identifikatzen dira.</p> <p>3.2. Saioetan curriculumeko orientabideak aurkitzen dira.</p> <p>3.3. Saioen adierazpena Lehen Hezkuntzako haurren hizkuntzara egokitzen dira.</p>
M04	<p>4.1. Saioak balioesteko irizpideak ditu.</p> <p>4.2. Ikaskideen lanari buruzko iritzia argudiatzen du.</p> <p>4.3. Ikaskideen lanak aztertuta, hobekuntza egingarriak proposatzen dira.</p>
M05	<p>5.1. Kontzeptu mapak eratzeko teknika ondo erabiltzen dira.</p> <p>5.2. Eskainitako informazioa zuzena da.</p> <p>5.3. Informazio grafikoa ondo integraturik agertzen da testuan.</p>

8.- ERANSKINAK

8.1: TALDEKO FITXA

LEHEN HEZKUNTZA 2021-2022 II. Diziplinartereko lana	
LH - 3_ GA_	Taldearen izena (aukeran): Matematika irakasgaiaren hizkuntza:
	PARTAIDEAK
	IZENA: ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:
IZENA: ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:	
	IZENA: ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:
IZENA: ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:	
	IZENA: ABIZENAK: E-MAILA: OHARRAK:

8.2. LEHEN TXOSTENAREN EGITURA ETA EDUKIA: ALDERDI TEORIKOAREN LANKETA (JUSTIFIKAZIOA ETA HASUNARKETA)

Txostenaren atalak honako hauek izango:

1. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen garapen didaktikoaren ezaugarriak eskolan (3-4 orri). Ikasgelako giroak, antolakuntza moduak eta ikaskuntza jarduera motak deskribatu ahala, *askotariko adimenen* teoriak eta curriculum diseinuak duten eraginaz idatziko duzue, baita dituzten ahuleziez ere. Testuaren enborra IKASGELAKO GARAPEN DIDAKTIKOA da; eta *askotariko adimenen teoriatik* eta *erreferentziatzko curriculum esparrutik* datozen ekarpenak tartean txertatuz osatuko da.

2. Erreferentzia bibliografikoak (APA 7. edizioa)

Honetaz gain, bukaerako atal batean, talde lanean nola aritu zareten azaldu beharko duzue indargune, ahulgune eta zailtasunen hausnarketa labur bat eginez

Liburua:

Ardozzine, P., eta Rivoltella, P. C. (2004). *Didáctica para e-learning*. Ediciones Aljibe.

Liburu kapitulua:

Kherroubi, M. (2007). Pourquoi travailler en équipe à l'école primaire?. In A. Lopes (Ant.), *De uma escolar a outra: temas para pensar a formação de professores* (35-42). Edições Afrontamento.

Aldizkari artikulua:

Domingo, L., Sánchez, J. A., eta Sancho, J. M^º. (2011). Desde la voz del alumnado.

On line dokumentua:

Tedesco, J. C., eta Tenti Fanfani, E. (2002). Nuevos tiempos y nuevos docentes. *Instituto Internacional de Planificación en Educación* (web orriaren izenburua). <http://www.iipe-buenosaires.org.ar>

Legea:

236/2015 Dekretua [con fuerza de ley]. Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. 2016ko urtarrilaren 15ean. D.O. No. 9.

8.3. BIGARREN TXOSTENAREN EGITURA ETA EDUKIA

Ikasleekin aurrera eramango duten ordu beteko **5 saioen zehaztapena**. Horietan 1. Taulako prozedura guztiak landu beharko dira. Ahal den neurrian saio bakoitzean prozedura desberdinak konbinatuz. Aintzat hartu, zuek aukeratzen duzuen Lehen Hezkuntzako etapari zuzenduko zaiola. Txostenak izango dituen atalak eta xehetasunak honakoak izango dira. Jarduera bakoitzeko honako txosten bat idatzi beharko da.

- 1.- Saioaren zenbakia eta deskribapena
- 2.- Lantzen diren prozedurak eta azalpenak
- 3.- Beharrezko materiala

8.4. TALDEEN ARTEKO EBALUAZIO SAIORAKO ORRIA

Lanarekin bukatzeko ebaluazio fase batetik pasatuko zarete. Zuen lana beste talde batekin elkartrukatu eta, ondoren, ebaluazio orri hau bete eta taldeari helaraztea izango da.

Ebaluatu beharreko atalak:

- 1.- PROZESUA: Saioaren garapenean zer gertatu da?
- 2.- SAIOAK: Irakasle bezala saio hauek nola baloratzen ditugu? Koherentzia, motibagarritasuna, orijinaltasuna, zailtasun maila, prozeduren lanketa, esperimentaziorako materiala, etab.
- 3.- ONDORIOAK: Zer ekarpen egin digu talde honen lana aztertzeak? zein hobekuntza planteatuko dizkiogu taldeari?

8.5. MODULUAREN EBALUAKETA ORRIA IKASLEENTZAT

Talde bakoitzak diziplinarteko lanaren azken txostena aurkeztean ebaluaketa orri hau ere txertatu beharko du.

- Moduluak aurreikusiak zituen kompetentziak lortu direla uste al duzue? (Diziplinarteko lanaren gidaren hasieran daude kompetentzia hauek)
- Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
- Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).
- Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
- Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan